

BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4384

EBAZPENA, 2014ko urriaren 8koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, 2014-2015erako garapen lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko sei beketarako deialdia egiten duena.

2014. urteari doakionez, deialdi hau egiterekin konplitu egiten dira ekainaren 17ko 138/1997 Dekretuan jasotako aurreikuspenak; dekretu horren bitartez, arautu egiten dira Garapen Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko bekak (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 125. zk.; 1997ko uztailaren 2koa). Oro har, ebazpen honetan ez dira errepikatuko dekretu horren edukiak, zeina diru-laguntza hauen deialdira aurkeztu nahi duten pertsonak nahitaez kontsultatu behar baitute.

Aipatu dekretuko 2.1 artikuluan honako hau ezartzen da: beka horietarako deialdia urtero egingo da, Lehendakariaren idazkariaren erabakiaren bitartez. Erabaki horretan honako hauek adierazi behar dira: deialdiaren xedea, bekaren iraupena, beken dotazioa eta ordainketa, eskabide-eremuak eta esleipen-moduak. Gaur egun, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia da eskumen hori duen organoa, bi dekretu hauek aplikatuta: Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatu eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen abenduaren 15eko 20/2012 Dekretua, lehendakariarena; eta Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 9ko 187/2013 Dekretua.

Aipatu laguntzak kudeatzeari eta eman beharreko ebazpenei dagokienez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren organoena da eskumena; betiere, honako arau hauetan xedatutakoaren arabera: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta erregulatzeari buruzko ekainaren 19ko 5/2008 Legeko 4.b) artikulua; eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren funtzionamendu eta antolaketari buruzko Erregelamenduaren –martxoaren 23ko 95/2010 Dekretuak onartutakoaren– 5.b) artikulua.

Azkenik, esan behar da eze, deialdi honi dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Artezte Kontseiluak proposamena egiteaz gain, erabakia hartu zuela, 2014ko ekainaren 17an egindako bilkuran.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Garapenerako lankidetzaren arloan profesionalak prestatu eta espezializatzea bultzatzeko sei bekaren – 2014-2015eko ekitaldirakoen– deialdia egitea da ebazpen honen xeda; hamabi hilabeteko epean garatu behar dira beka horiek. Hasiara eguna, 2013ko abenduaren 31rako aurreikusia, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak zehaztu behar du.

2. artikulua.– Iraupena eta non garatuko diren.

1.– Bekek hamabi hilabeteko iraupena izango dute; eta epe hori honelaxe zenbatuko da: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendariak bekak esleitzeko ebazpen bat emango du; bada, ebazpen horretan finkatutako egunetik aurrera egingo da zenbaketa hori.

2.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako bulegoetan (Gasteiz) burutuko dira beken onuradunen espezializazioa eta prestakuntza; baina, operatibitatea edo edukiaren mamia dela-eta beste leku edo lurralde batzuetan burutu behar badira, hala egingo da.

3. artikulua.– Izapideketa elektronikoa.

1.– Prozedura honen izapide guztiak egiteko, kontsultatzeko eta eskatzeko, bide elektronikoak erabil ditzakete interesaturik dauden pertsonak.

2.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak –bai aurrez aurre, bai bide elektronikoa erabiliz– izapidetzeko zehaztapenak honako egoitza elektronikoa daude eskuragarri: https://www.euskadi.net/ayuda_subvencion/2014/bek_2014/y22-izapide/eu

3.– Eskabidea izapidetzeko eta agiriak aurkezteko bide bat edo bestea erabiltzeak, hau da, aurrez aurrekoa edo elektronikoa erabiltzeak ez du behartzen honako honetara: prozedurako gainerako izapideak egiteko, aurrerantzean ere bide bera erabiltzera; eta edozein momentutan alda daiteke aukeratutako bidea.

4.– Eskabidearen osteko izapideak, bide elektronikotik egiten badira, ondoko helbideko egoitza elektronikoa bidez egin beharko dira: <https://www.euskadi.net> apartado «mis gestiones»

4. artikulua.– Pertsona eskatzaileen betekizunak egiaztatzea.

1.– Eskabideetan aukera egongo da pertsona eskatzailea denak berariaz honako hau onartzeko: aurkeztu behar diren datuak edo agiriak organo kudeatzaileak lortu edo egiaztatzea, nahiz aurrez aurreko bidea nahiz bide elektronikoa erabiltzen duenean, betiere eragotzi gabe Administrazio Publikoak dituen egiaztatze-, kontrolatze- eta ikuskatze-ahalmenak.

2.– Eskabidea aurkezteaz gain, honako obligazio hauek egiaztatu beharko dira:

– Aipatu beken onuraduna ez izana lehenago.

– Beka baliatzeko bateraezintasunik ez izatea, zehazki, 138/1997 Dekretuko 12. artikuluan ezarritakorik.

– Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen zigor penalik edo administrazio bidez jaso ez izana.

– Diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko ezgaitzen duen legeko debekurik ez izatea, barne direlarik sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak.

– Era berean, onuradunei laguntzak edo diru-laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaiturik izatea honako edozein itzultze- edo zehapen-prozedura: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik bideratzen ari dena.

5. artikulua.– Diru-zuzkidura eta ordainketa.

1.– Diru-zuzkidura honako hau izango da:

a) Beka bakoitzarentzat 18.000 euro.

b) Bestalde, ekainaren 17ko 138/1997 Dekretuko 3.d) artikuluan zehaztu prestakuntza gauzatzeko aurreikusitako zenbateko guztizkoa hauxe izango da: sei bekadunentzako 10.000 euro.

2.– Kredituaren aurrekontu-banaketa hauxe izango da:

a) 2014ko ekitaldiaren kargura 30.000 euro, ordainketa-kreditu gisa, eta

b) 2015eko ekitaldiaren kargura 88.000 euro, konpromiso-kreditu gisa.

3.– Ordainketa:

Beka esleitu ostean egingo da lehen ordainketa, aldeztu aurretik bekaduna onartu eta hartuta, eta bekaren zenbatekoaren % 25ekoa izango da. Bigarren ordainketa, bekaren zenbatekoaren % 40 egiten duena, bekaz baliatzen hasten denetik lau hilabete pasatu ostean egingo da, eta, betiere, bekadunaren jarduerak garatzeari buruzko aldizkako txostena aurkeztuta aldeztu aurretik. Hirugarren ordainketa, bekaren zenbatekoaren % 25 egiten duena, bigarren ordainketa egin zenetik aurrerako sei hilabete pasatu ostean, eta, betiere, aldizkako txosten egokia aurkeztuta aldeztu aurretik. Azkena den laugarren ordainketa, bekaren zenbatekoaren % 10 egiten duena, honako hau aurkeztu eta onartu ostean egingo da: ekainaren 17ko 138/1997 Dekretuko 3.a) artikuluan zehazten den lana edo azterlana.

6. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.–Ebazpen honetako I. eranskinean ezarritako ereduarekin bat etorriaz eta hura behar bezala beteta, laguntza-eskabideak aurrez aurre aurkez daitezke Herritarrentzako Zerbitzuaren bulegoetan eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bulegoetan, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 38.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean. Aipatu eranskineko eskabide-eredua Agentziaren web orrian ere eskuratu ahal izango da: www.elankidetz.euskadi.net

3.– Orobat, eskabideak bide elektronikoaren bidez aurkeztu ahalko dira honako egoitza elektronikoa: https://www.euskadi.net/ayuda_subvencion/2014/bek_2014/y22-izapide/eu

4.– Eskatzaileek eskabidea eta dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz aurkez ditzakete, nahi duten eran. Orobat, prozeduran zehar, eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 oinarrizko Legearen 5.2.a eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

7. artikulua.– Prozedura kudeatuko duen organoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari dagokio diru-laguntza lerro hau kudeatzeko atazak egitea. Hartarako, laguntza-eskabideen gaineko balorazioa eta azterketa teknikoa egingo du Koordinazio Teknikorako Zerbitzuak, eta, bestalde, proposamena helaraziko dio Hautaketa Batzordeari. Eta hartarako batzarturik, batzorde horrek proposamena egingo dio organo eskudunari, hain justu ere beka esleitzeari buruzkoa.

8. artikulua.– Hautaketa Batzordea.

Aurreko artikuluan aipatu Hautaketa Batzordea honako pertsona hauek osatuko dute:

- Lehendakaria: Ainara Arrieta Archilla, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Teknikoaren arduraduna.
- Batzordekidea: Noemí de la Fuente Pereda, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Koordinazio Estrategikoaren arduraduna.
- Batzordekidea: Nicolás Basarrate Hormaechea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Administrazio eta Zerbitzuen arduraduna.
- Idazkaria: Ana Rojo González, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako aholkulari juridikoa.

9. artikulua.– Esleipenak egiteko eskumena duen organoa.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria da deialdiko bekak esleitzeko eskumena duen organoa.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Ebazpen honetan berriaz aurreikusita ez dagoen guztirako, honako hiru hauetan jasotako aurreikuspenak aplikatuko dira: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko Legea; Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretua; eta Garapen Lankidetzaren arloan profesionalak espezializatzeko bekak erregulatzeari buruzko ekainaren 17ko 138/1997 Dekretua.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, berorren aurka, aukerako berraztertze-errekurtoa aurkez dakiok Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtoa aurkez daiteke, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK HIRUGARRENA

Ebazpen honek, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko urriaren 8a.

Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia,
MARÍA ÁNGELES ELORZA ZUBIRÍA.



Inprimatu

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eskabidea

GARAPEN LANKIDETZAREN ARLOAN PROFESIONALAK
ESPEZIALIZATZEKO ETA PRESTATZEKO BEKAK

(*) nahitaezko eremuak

Eskatzailea *

 Titularra Ordezkarria

Datu pertsonalak

Titularra

Izena *

Telefonoa

Lehen abizena *

Bigarren abizena *

Sexua * Gizona

Identifikazio-dokumentua *

Zenbakia *

 Emakumea

Ordezkarria

Izena / Erakundearen izena

Telefonoa

Lehen abizena

Bigarren abizena

Sexua Gizona

Identifikazio-dokumentua

Zenbakia

 Emakumea

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala *

 Posta bidezkoa

Helbidea *

Zk. _____ Sol. _____ Letra _____

PK *

Udalerrria *

Probintzia *

Herrialdea * ESPAINIA

 Elektronikoa

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuen hizkuntza *

 Euskara Gaztelania

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa edo SMS bidezko doako abisuen sistema erabili dezakezu. Sistemak abisatu egingo dizu jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen zaizun bakoitzean.

Helbide elektronikoa edo telefono-zenbaki bat baino gehiago emanaz gero, bereiz itzazu puntu eta koma bidez [;].

Helbide elektronikoa: _____

SMSa: _____

Erantzukizunpeko adierazpenak

Aitortzen dut:

- Aurreko deialdietan beka hauen onuradun ez izatea.
- 138/1997 DEKRETUAK 12. Artikuluan beka jasotzeko ezartzen dituen bateraezintasunen pean ez erortzea.
- Diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasuna kentzen dion zehapenik ez izatea, administratiboa edo penala.
- Diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko gaitasuna eragozten duen lege-debeku baten pean ez erortzea, beren-beregi sexu-diskriminazioaren ondorioz gertaturikoak ez izatea.

Bekaren ematea, eta dagokionean, onuradunei egingo zaien diru-laguntzen eta laguntzen ordainketa edozein

- itzultze edo zigor prozeduraren bukaerari baldintzatu egongo denaren onarpena. Prozedura hori, Euskadiko Autonomi Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek emandako izaera berdina duten laguntza edo diru-laguntzen testuinguruan hasia egonik, oraindik izapideak egiten ari direnaren kasuan.

¹ Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak seigarren azken xedapenean dioenaren arabera.

Baimenak

Deialdi hau kudeatzen duen organoari baimena ematen diot dagokion administrazioan honako datu hauek egiaztatzeko, baieztatzeko edo ziurtatzeko, baliabide elektronikoen bidez edo aukeran dauden baliabideen bidez:

- Nortasun-datuak
- Unibertsitateko titulazioaren ziurtagiria
- Euskarazko titulazioaren ziurtagiria

Aurkeztu beharreko agiriak

1. NANaren fotokopia.
2. Erroldaren ziurtagiri originala edo kautotua, EAEko edozein udalerritan 2014ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik bizi dela egiaztatzeko.
3. Lizentziaduna izatea egiaztatzen duen tituluaren kopia kautotua.
4. Curriculum vitae-a, ezarritako ereduan eta ikasketa-espedientea barne.
5. Euskara tituluaren originalak edo kopia kautotuak.
6. Atzerriko hizkuntzen tituluaren originalak edo kopia kautotuak.
7. Bekarako garrantzi berezia duten burututako ikasketen eta esperientzia praktikoaren ziurtagiri originalak edo kautotuak. Egiaztatzen diren ikasketa eta esperientziak, merezimendu gisa kontuan hartuak izateko, izaera ofiziala eta balio akademikoa eduki beharko dute.
8. Neurri txikiko argazki bat

Datu pertsonalen babesa² (DPBL)

Eskabidean agertzen diren datuak ezaugarri hauek dituen fitxategi batean sartu dira:

- Izena: AYU. Y SUBV. DE COOP. AL DESARROLLO
- Titularra: Garapen Lankidetzaren Euskal Agentzia
- Helburua: laguntza emateko espedienteak kudeatzea

Fitxategiaren berri eman zaio aldez aurretik Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, eta datuen segurtasun osoa bermatzeko behar diren segurtasun-neurriak ezarrita dauzka. Datu horiek ez zaizkio beste inori emango, legeak bideratutako kasuetan izan ezik.

DPBLak aitortzen duen bezala, sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideez baliatzeko, jarri harremanetan Eusko Jaurlaritzako dagokion zuzendaritzarekin:

Nafarroa kalea 2
01007 Vitoria-Gasteiz

Laguntzak behar bezala esleitzeko, Administrazio publikoak adierazi diren datuak erkatu ahal izango ditu eta berariazko egiaztapenak egin.

_____ (Tokia) (e)n _____ (Data) (e)an

(Titularren edo ordezkariaren sinadura)

² Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak –DPBL- xedatutakoa betez.

Eskabidea osatzeko argibideak

Eskatzailea

Zure izenean ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Titularra*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu *titularri* dagozkion datuak.
- Sina ezazu eskabidea.

Beste pertsona baten ordezkari gisa ari bazara:

- *Eskatzailea* atalean, aukeratu ezazu *Ordezkaria*.
- *Datu pertsonalak* atalean, bete itzazu ordezkatzun pertsonaren datuak *Titularra* atalean, eta zureak *Ordezkaria* atalean.
- Sina ezazu eskabidea.

Jakinarazpen eta komunikazioetarako kanala

Jakinarazpen eta komunikazioak jasotzeko, aukera hauek dituzu:

Posta bidezkoa: *Posta bidezkoa* atalean jarri duzun helbidera igorriko dira.

Elektronikoa: [Nire kudeaketak](#) guneko jakinarazpen eta komunikazioen atalera igorriko dira. Han sartzeko, [onartutako ziurtagiri elektronikoa](#) bat izan behar duzu.

Oharra: 10 eguneko epea duzu jakinarazpena sartzeko; bestela, jakinarazpena errefusatutzat joko da, izapidea egintzat emango da eta prozedurak aurrera egingo du.


2014ko urriaren 20a, astelehena



Inprimatu

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

CURRICULUM VITAE



Abizenak: _____

Izena: _____

 NAN: - Jaioteguna: _____

Helbidea: _____

Herria: _____

 Probintzia: _____ P.K.:
Telefona:

Helbide elektronikoa: _____

2014ko urriaren 20a, astelehena

Prestakuntza akademikoa

Lizentziatura (zehaztu): _____

Zentroa: _____

Ikasketak noiz amaitu zituen: _____

Ziurtagiri akademikoaren kalifikazioa: _____

Egindako graduondoko ikastaroak

Titulua	Amaiera-eguna	Zentroa	Ordu kop.	Egiatzapena

+ Lerro Berria Gehitu**Beste ikasketa edo ikastaro batzuk**

Titulua	Amaiera-eguna	Zentroa	Ordu kop.	Egiatzapena

+ Lerro Berria Gehitu**Jasotako beka eta laguntzak**

Entitatea	Bekaren izena	Iraupena	Funtzioak	Egiatzapena

+ Lerro Berria Gehitu**Experiencia profesional**

Kargua	Entitatea	Boluntarioa / Kontratua	Funtzioak	Egiatzapena

+ Lerro Berria Gehitu

2014ko urriaren 20a, astelehena

Egindako lan eta argitalpenak

Izenburua: _____

Non argitaratu den: _____ Data: _____

+ Argitalpen Berria Gehitu**Hizkuntzak**

Hizkuntza	Irakurtzen du	Hitz egiten du	Idazten du

+ Lerro Berria Gehitu**Informatikari buruzko ezagutza****Beste datu interesgarri batzuk**